



Esp. Zk. SUBV_EVAL_INDIV/2025/9

DIRULAGUNTZAK BANAKAKO EBALUAZIO-ARAU BIDEAN EMATEKO DEIALDI PUBLIKOA, 2025.

URTEAN LAGUNTZA HUMANITARIOKO ETA LARRIALDIKO PROIEKTUAK GAUZATZEKO.

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAO n, otsailaren 17koan, argitaratua](#)).

Iruñeko Udalak, 2025eko hasierako aurrekontuan, 1.677.904 euroko hasierako zenbatekoa aurreikusi du Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programa gauzatzeko, herrialde pobreenetako komunitate behartsuenei laguntze aldera.

Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak honako jardute-ildo hauek ditu oinarri:

a) Sentsibilizazio-jarduerak finantzatzea beste batzuekin batera, betiere Hegoaldeko herrialdeen egoera, egoera horren zio eragileak eta egoera horretan bizi diren komunitateak hura gainditzeko egiten ari diren ahaleginak ardatz hartuta.

b) Garapenaren aldeko gobernuz kanpoko erakundeek (GGKE) garapenaren alde eginiko proiektuak finantzatzea beste batzuekin batera, bi helbururekin: Hegoaldearen garapenaren alde aritzea eta udalerriko elkarte solidarioen sarea sendotzea.

c) Larrialdietako jarduketa humanitarioetan laguntzea.

d) Udalaren zuzeneko inplikazioa Hegoaldeko toki-erakundeekin, lankidetzak proiektuetan.

e) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) sortu duen Lankidetzako Tokiko Funtsean parte hartzea.

f) Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluan eta gure hirian lanean ari diren GGKEekin jardutea, parte hartuz eta informazioa emanez.

Iruñeko Udalaren 2025erako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburuetako bat da hondamendi naturalek edo giza jatorriko gatazkek eragindako larrialdi humanitarioko egoeretatik edo berehalako arrisku batetik datozen ondorioak arintzeko jarduketak sustatzea. Plan horren 2. ildo-estrategikoan (Lankidetzak) jasotzen da berariazko dirulaguntza-ildo bat, laguntza humanitarioko eta larrialdietako proiektuak gauzatzeko dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdirako. Horregatik guztiagatik, deialdi hau aipatutako plan estrategikoak ezartzen dituen helburu, esparru eta oinarritzko ildoekin guztiz bat datorren tresna gisa ikusten da.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzio, Berrikuntzako, Garapenerako Lankidetzako eta Gazterriko Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzio, Berrikuntzako,



	Garapenerako Lankidetzako eta Gazterriako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Ekintza humanitarioak barne hartzen ditu laguntza eta babesa emateko ekintzak hondamendien biktimei, izan hondamendi horien jatorria fisiko-naturala edo klimatikoa zein gizakion ekintza, eta indarkeria orokortuaren eta gatazka armatuen ondorioak jasaten dituztenei, herritarren desplazamendu behartuak barne. Kaltetutakoei laguntza eta babesa emateko oinarritzko ondasunak eta zerbitzuak –materialak eta/edo gizatiarrak– premiaz bidaltzea barne hartzen du, bai eta hondamendiak prebenitzeko eta horietarako prestatzeko ekintzak ere, kaltetutako pertsonen biziraupena bermatzeko eta haien sufrimendua arintzeko.

Deialdira edozein kokapen geografikotan larrialdiko jarduketa humanitario txikiak egiten dituzten GGKEak aurkezten ahalko dira, 2025. urtean abiatzen badira betiere. Aurkezten diren jarduerak bere horretan garatzeko modukoak izan beharko dute, proiektu zabalago baten parte diren edo ez kontuan hartu gabe.

Modalitate horretan sartzen dira larrialdiko egoeran edo arrisku larrian eta berehalakoan dauden herrialdeetan/komunitateetan zuzenean jarduteko programak. Bereziki, honako jarduketa hauek:

- **Prebentzio-programak edo -zerbitzuak eta/edo biktimak babestekoak.**
- **Osasun-materialak edo -ekipoak erosi eta igortzea, hornidurak eta/edo pertsonendako arreta barne, oinarritzko beharrak asetzeko (elikadura, higiena, osasuna).**
- **Hondamendi naturalen, gatazka armatuen edo gizakiak sortutako beste batzuen ondorioz kaltetutako oinarritzko azpiegiturak berreraikitzea edo birgaitzea.**

2. Deialdiaren helburua:

1999. urteaz geroztik eta Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programaren bitartez, laguntza eman du Iruñeko udalerrian jarduten duten hainbat erakundek edo garapen-proiektuetan Iruñeko Udalarekin lankidetzan aritu diren Hegoaldeko udalek giza larrialdietan egiten dituzten jarduketetarako. Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzari buruzko otsailaren 20ko 1/2023 Legeak eta Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeak Garapenaren aldeko Lankidetzan aritzeko eremuetakotzat jotzen dituzte larrialdi humanitarioetarako jarduketak.

Aintzat harturik ere larrialdietan edo premia humanitarioen aurrean toki-erakunde batek erantzuteko gaitasun mugatua duela, Iruñeko Udalak garrantzitsu deritza alor horretan sortzen diren ekimenetan laguntzeari. Batez ere, planteatzen diren ekintzak GNLUPEk babestutako beste ekimen batzuen osagarri izatea lortu nahi da.

3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak eta epeak:

a) Deialdi honetan adierazitako printzipio eta baldintzen arabera egokiak izatea. Orobat, erantzun nahi den larrialdi humanitarioa eskaera aurkezten den egunean gertatu edo egon beharko da aktibo, eta inoiz ez eskaera aurkezten den eguna baino hiru hilabete lehenagotik.

b) Behar bezain zabal garatuta edukitzea emaitzen, jardueren eta proiektua gauzatzeko behar diren baliabideen berri ematen duen informazioa.

c) Tokiko bazkide bat izatea proiektua eginen den eskualdean. Kide hori Administrazio Publiko bat izan daiteke, edo GGKE bat, barne harturik eskaera egiten duen GGKEak herrialde hartzailean duen ordezkaritza.

d) Behar bezain zabal ematea proiektua gauzatzeari arduratuko den entitatearen (tokiko kidea) helburuen eta lan-eskarmentuaren berri.

e) GGKEak proiektuaren gaineko ezagutza zabala duela frogatzea eta tokiko kidearekin edo komunitate hartzailearekin diruz lagundutako ekintzaren jarraipena egiteko zer-nolako harremanak ezarriko diren azaltzea.

f) Aurkeztutako proiektua gauzatzeko aurreikusitako hasierako epea ez izatea sei hilabetetik gorakoa.



g) Dirulaguntzaren xede diren jarduerak txikiak izan behar dute. Deialdi honetan eskatzen den jarduera proiektu handiago batean sartzen bada, eskatzen den jarduerak ezin izanen du 50.000 €-tik gorakoa izan, hau da, ezin izanen du proiektu horretan aurreikusitako jarduera guztien % 30 gainditu.

h) Botikak emateko edo horiek eskura jartzeko jarduerak barne hartzen dituzten proiektuak Osasunaren Mundu Erakundeak eta Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak ezarritako indarreko jarraibideei lotu beharko zaizkie.

i) Entitate bakoitzak eskabide bakarra aurkezten ahalko du deialdi honetan.

4. Baloratzeko betekizunak, bideak eta lehentasunak:

☒ BAI ☐ EZ

100 PUNTU GEHIENEZ ERE

Aurkeztutako larrialdi humanitarioko jarduketak baloratzeko irizpideak:

I. blokea. Entitatearen gaitasuna (16 puntu bitarte):

- Jarduera nagusiaren izaera eta entitatearen ibilbidea jarduketa-esparru horretan, proiektuari ekin behar diotenen gaitasunari eta horien harremanen kalitateari dagokionez. (4 puntu bitarte)
- Tokiko kontrapartearen eskarmentua eta gaitasuna, bai eta bertako biztanle onuradunekin eta garapenaren aldeko lankidetzako beste entitateekin edo tokiko erakundeekin duen lotura ere. (4 puntu bitarte)
- Oinarrizko edo komunitateko partaidetza eta antolamendua sustatzea. (4 puntu bitarte)
- GGKE eskatzailearen eskarmentua eta jarraipena egiteko gaitasuna. (4 puntu bitarte)

II. blokea: Emandako informazioa eta proiektuaren kalitate teknikoa: Gehienez, 73 puntu.

2.1 Proiektuaren kalitate teknikoa. Egokitzapena, koherentzia eta doikuntza honako alderdi hauen artean: proiektuaren oinarria, helburuak, jarduerak, esperotako emaitzak, giza baliabideak eta baliabide materialak, eta ebaluazio-adierazleak: 46 puntu bitarte.

Puntuaren banaketa proiektuaren memorian adierazitako honako alderdi hauek kontuan hartuta egiten da:

- Eskualdean egindako eta GNLUPEk lagundutako beste ekimen batzuekiko ekintza osagarriak (3 puntu bitarte)
- Eskaera zenbateraino den premiazkoa edo beharrezkoa (3 puntu bitarte)
- Proiektuaren testuinguruari buruzko informazioa (esku hartzeko herrialdeaz eta eskualdeaz): aurrekariak, problematikaren testuingurua, ikuspuntua, jarduketaren lehenespena eta esku-hartzearen gune nagusia. (4 puntu bitarte)
- Informazioa proiektua hartzen duen sektorearen egoerari buruz: testuingurua, baliabide materialak eta ekonomikoak eta giza baliabideak, azpiegiturak... (4 puntu bitarte)
- Garatu beharreko proiektuari buruzko informazioa. (8 puntu bitarte)
- Koherentzia-maila jarduketaren justifikazioaren, ezarritako helburuen eta proposatutako jardueren artean: erabiliko den metodologia eta teknikak, egutegia... (4 puntu bitarte)
- Egin beharreko jarduketaren bideragarritasun teknikoa (informazio hau ezinbestekoa izanen da azpiegituren proiektuetarako) (4 puntu bitarte)
- Giza baliabideak eta baliabide materialak. (4 puntu bitarte)
- Ebaluazio-adierazleak. (4 puntu bitarte)
- Eragina, biztanle onuradunen kopuruari dagokionez. (4 puntu bitarte)
- Proiektuaren genero-ikuspegia. (4 puntu bitarte)

2.2 Aurrekontuaren egokitzapena eta koherentzia: 12 puntu bitarte.

- Deialdiaren baldintzekiko egokitzapen-maila. (4 puntu bitarte)
- Proposatutako jardueretikiko egokitzapen-maila. (4 puntu bitarte)
- Aurrekontuaren informazio-/xehakatzeko-maila, kontzeptuei eta finantzatzaileei dagokienez. (4 puntu bitarte)

2.3. Proiektuaren osagarritasuna esku-hartze eremuan gauzatu beharreko garapen- edo birgaitze-jarduketekin: 15 puntu bitarte

- Proiektuaren osagarritasuna esku-hartze eremuko larrialdi humanitarioko beste ekintza batzuekin, bereziki entitate publikoek edo gizarte-erakundeek sareek egiten badituzte. (5 puntu bitarte)



- Inplikazioa garapenaren aldeko lankidetzako beste erakunde eta/edo tokiko instituzio batzuen proiektuetan, eta horien arteko osagarritasun maila. (5 puntu bitarte)
- Eskatutako esku-hartzea bukatutakoan, esku hartzeko eskualdean lanean jarraitzea, aurreikusitako beste garapen- edo birgaitze-ekintza batzuen bidez. (5 puntu bitarte)

III. blokea: Kontuan hartu beharreko beste irizpide batzuk: 11 puntu bitarte.

- Proiektua deialdiaren formatuetara, eranskinetara eta aurkezpenera egokitzea. (5 puntu bitarte).
- Iruñeko taldeak egiten diren ekintzetan inplikatzeko, dela ekarpen materialen bitartez, dela boluntariotzako ekintzen bidez. (3 puntu)
- Iruñeko iritzi publikoa proiektu horren inguruan sentsibilizatzeko lagungarri diren informazio-jarduerak programatzea. (3 puntu)

Proiektuek, dirulaguntza jasotzeko, gutxienez 70 puntu lortu beharko dituzte.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 105.000 €

Apartatu honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, aurrekontu-kontsignazioa 2025ean agortzen bada eta bestelako funts erabilgarriak bada, horiek deialdi honetan erabiltzen ahalko dira, baina horrek ez du berez ekarriko beste deialdi bat egitea. Gehikuntza horren onuradun izanen dira eskabidea deialdi honekin bat eta dirulaguntzak eskatzeko epean egin duten eskatzaileak, baldin eta kreditua agortzean laguntzarik jaso gabe gelditu badira. Aurkezpen-ordenari hertsiki jarraituz emanen dira. Dirulaguntzek ezin izanen dute gaingitu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 90/23930/490000

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Banakako gehieneko zenbatekoa: 15.000€

Hura zehazteko irizpideak. Eskatutako gutxienezko puntuazioa (70 puntu) lortzen duten proiektuendako dirulaguntza eskatutako eta onetsitako zenbatekoaren % 100ekoa izanen da, betiere proiektu bakoitzerako gehieneko mugatzat hartuta aurreko paragrafoan ezarritakoa eta funts erabilgarriak badaude. Jasotako laguntza, gehienez, proiektuaren kostu osoaren % 90 izanen da, eta gutxienez % 10 batera finantzatzeko da.

4. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

5. Urtekoak:

Urteko arrunta:	105.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

a) Bere izaera juridikoarekin eta legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea, eta Garapenaren aldeko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren (AECID) Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Erregistroan izena emanda izatea eskabideak aurkezteko mugaegunean; halaber, dokumentazioa eguneratua izan beharko dute.



- b) Irabazi-asmorik gabekoa izatea.
- c) Xede izatea, espresuki, garapenaren aldeko lankidetzari eta herrien arteko elkartasunari lotutako jarduerak egitea.
- d) Iruñean edukitzea egoitza edo ordezkaritza iraunkorra. Nolanahi ere, deialdi honen onuradunak izan daitezke baldintza hau bete ez, baina azken urtean Iruñean Hegoaldeko herrialdeen egoerarekiko elkartasuna eta sentsibilizazioa sustatzearen esparruan jarduerak egin dituztela egiaztatzen duten entitateak.
- e) Dirulaguntzaren xede diren jarduerak txikiak izan behar dute. Deialdi honetan eskatzen den jarduera proiektu handiago batean sartzen bada, eskatzen den jarduerak ezin izanen gainditu proiektu horretan aurreikusitako jarduera guztien % 30.
- f) Tokiko bazkide bat (kontrapartea) izatea proiektua eginen den eskualdean. Kide hori Administrazio Publiko bat izan daiteke, edo GGKE bat, barne harturik eskaera egiten duen GGKEak herrialde hartzailean duen ordezkaritza. Behar bezain zabal eman beharko da proiektua gauzatzeaz arduratuko den entitatearen (tokiko kidea) helburuen eta lan eskarmentuaren berri.
- g) Halako egitura edukitzea ezen nahikoa izanen baita hala helburu sozialak beteko direla bermatzeko nola proposaturiko helburuak erdieste aldera behar diren eskarmentua eta jarduteko gaitasuna egiaztatzeko.
- h) Erakunde eskatzaileak frogatu beharko du gutxienez urtebeteko lan-esperientzia duela esku hartzen den eskualdean eta aurkeztutako proiektua ondo ezagutzen duela.
- i) Entitate eskatzaileak Iruñeko Udaleko Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzak Programaren aurreko deialdietan dirulaguntzarik jaso badu, egunean izan beharko dute jarraipen- eta justifikazio-txostenen aurkezpena, dirulaguntza ekarri zuen deialdiaren Oinarrietan ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntza berezia denez, pertsona edo entitate onuradunek ez daukate zertan egiaztatu Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko

☒ BAI

betebeharrak:

☐ EZ

a) Dirulaguntzaren xede diren helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo jokabideari heldzea.

b) Gauzatzeko epeak betetzea. Proiektuak gehienez ere 6 hilabeteko epean egin beharko dira, dirulaguntza ordaindu den egunetik aitzina, ezohiko inguruabarrak direla-eta edo ezinbestek bultzatuta ezin denean izan ezik; kasu horietan aldez aurretik justifikatu eta jakinarazi beharko zaio Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari, eta horrek onartu beharko ditu.

c) Iruñeko Udalari baimena eta laguntza ematea proiektua hedatzeko, iritzi publikoaren sentsibilizazioa sustatze aldera, lankidetzari eta nazioarteko elkartasunari dagokienez.

d) Organo emailearen aurrean justifikatzea, justifikazio-txostena aurkeztuta, baldintzak eta betekizunak bete dituztela, bai eta jarduera egin dutela eta dirulaguntza zertarako den eta helburu hori bete dutela ere.

e) Men egitea organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jarduketari, bai eta kontrol-organo eskudunek egiaztatzeko eta finantzaketa kontrolatzeko egiten ahal dituzten beste guztiei ere, betiere jarduketa horien ondorioz eskatzen dizkieten argibideak oro eman beharko dituztelarik, halakoak udal-fitxategietan jasota egon ezean.



f) Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortuz gero, horren berri ematea organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

g) Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari jakinaraztea proiektua garatzen ari den bitartean GGKE onuradunaren nortasun juridikoan gertatutako aldaketak oro: Estatutuak, entitatearen legezko ordezkaria, gizarte-ordezkaria edo tokiko kontraparte, etab.; edo harremanetarako datuetan: helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa, etab.

h) Egiaztatzea, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen, egunean dituela hala tributu-betebeharrak nola Gizarte Segurantzarekikoak. Iruñeko Udalak ofizioz egiaztatuko du entitateak egunean dituela berarekiko tributu-betebeharrak.

i) Gordetzea jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak –agiri elektronikoa barne–, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan daitezkeen neurrian.

j) Tokiko kideari (kontraparte) jakinaraztea jasotako dirulaguntzaren jatorria zein den.

k) Iruñeko Udalarari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabar, betekizun eta baldintzetan gertatzen diren aldaketak oro, eta, behar izanez gero, hari behar den baimena eskatzea. Proiektu bat aldatzeko eskaera aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak gertatu eta berehalakoan aurkeztu behar da, eta betiere aldaketak sartu baino lehenago, oinarri hauen F) apartatuan adierazitakoaren arabera.

l) Iruñeko Udalaren aurrekontuen kargura emandako aurreko dirulaguntza-deialdietan ezarritako betebeharrak egunean izatea.

m) Gardentasun-betebeharrari erantzunez, entitate onuradunek informazioa izanen dute honako hauei buruz: gobernu-, administrazio- eta zuzendaritza-organoen osara; kargudunen zerrenda eta horien dedikazio-araubidea; kargu bakoitzeko entitateak eskuratutako diru-sari gordinak eta bestelako diru-sarrerak, kontzeptuka banakaturik, eta urteko kontuak –organo emailearen eskura egonen dira, eta organo horrek eskatzen ahalko ditu–.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea egin beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak Udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko da komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: ☒ BAI ☐ EZ

Xede-epea: ondasun inbentariagarriak erosi, eraiki, zaharberritu edo hobetzen badira, GGKEak edo entitate onuradunak dirulaguntzaren xede den helburuetarako erabili beharko ditu ondasun horiek, gutxienez zazpi urteko epean erregistro publikoan erregistratzen ahal diren ondasunen kasuan, eta gutxienez bi urtekoan gainerako ondasunen kasuan. Erregistro publikoan inskribatzen ahal diren



ondasunen kasuan, eskrituran adierazi beharko da inguruabar hori, bai eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere; halaber, zehaztasun horiek jasoko dira dagokion erregistro publikoan inskripzioa egitean.

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Aurreikusi ez diren inguruabarrek proiektuaren garapena aldatu edo eragozten badute, aldaketak egiten ahalko dira proiektuan, honako arau hauekin bat:

Ebazpena aldatzea edo aurreratutako funtsak itzultzea ekarriko duten funtsezko aldaketatzat joko dira honako hauei eragiten dietenak: proiektuaren helburuei edo/eta espero diren emaitzei, eta aurrekontuari (eskaeran aurkeztutako aurrekontuarekiko % 20tik gorako aldea dutenak) eragiten dietenak.

Proposatutako aldaketen balorazioa B.4. apartatuan ezarritako irizpideak oinarritzat hartuta eginen da, eta edozein kasutan, proiektua planteatu zen moduan gauzatzea eragozten duten inguruabarren aurreikusezintasuna egiaztatu beharko da, eta, hala badagokio, lortutako dirulaguntza egokitu ahal izanen da.

Funtsezko aldaketak unitate kudeatzaileari jakinarazi beharko zaizkio, eskaera arrazoitua aurkezturik, aldaketak justifikatzen dituzten inguruabarrak agertu eta berehala eta, betiere, aldaketak egin baino lehen, baloratuak izan ahal izateko, eta, hala behar izatera, aldaketa horiek onesteko eta emakida berriz ere doitzeko.

Esku-hartzea gauzatzean gerta daitezkeen gainerako gertakariak eta aldaketak alor kudeatzaileari jakinaraziko zaizkio eta dagokion justifikazio-txostenean sartuko dira (ikusi Ñ apartatua).

G. ESKABIDEAK NON ETA NOIZ AURKEZTU:

1. Eskaerak non aurkeztu:

Modu telematikoan aurkeztu behar dira Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez, honako web-helbide honetan:

<https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2>

Aurkezpen telematikoak barne hartzen ditu deialdi honen G eta T apartatuetan aipatutako eranskinak.

2. Eskaerak aurkezteko epea: Eskaerak aurkezteko epea deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean noiz argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta deialdiaren indarraldi osoa hartuko du, kasu honetan 2025eko urriaren 17ra bitarte, betiere funts erabilgarririk izanez gero.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.



3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Laguntza hau eskatzeko, eskabide bat aurkeztu beharko da interesdunak berak sinatuta edo zuzenbidean baliadun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsona batek sinatuta, deialdi honen I. eranskinetako ereduarekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4 apartatuan aipatzen diren agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean hutsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldeztu aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoen eskutik badaude, haien ordeztu erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ahalko da indarrean direla egiaztatzeko, bertan adierazita noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nork eman zituen edo non dauden jasota, betiere ez badira bost urte baino gehiago pasatu agiriak dagokien prozedura amaitu zenetik.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiria, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzea.

. Estatutuak.

. Ziurtagiria, egiaztatzeko Garapenaren aldeko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren Garapenerako Gobernu Kanpoko Elkarleen Erregistroan izena emana duela.

. Identifikazio Fiskaleko Txartela.

. Entitate eskatzailearen legeko ordezkaria nor den aipatzea eta haren akreditazioa (nortasun agiri nazionala, pasaportea edo antzekoa)

. Iruñeko egoitzan edo ordezkartza iraunkorrean lanean ari diren kontratatuen eta boluntarioen zerrenda.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzen duena eskatzaileak betetzen dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek eskatzen dituen betekizun orokorrak eta deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ez diola ezein debeku-ziok eragiten Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnetatik.

c) Agiri hauek, eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela egiaztatzeko:

☒ Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

☐ Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, aipatu betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko. Hala bada, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio gehienez ere 15 eguneko epean aurkeztu ditzala adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio horrekin dituen tributuko betebeharrak, eta dagokion eginbidearen bitartez adieraziko du egiaztapen hori.

Deialdi honekin batera doan VII. eranskina aurkeztea.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –publikoa



zein pribatua–, eskabidean berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahalduen bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen batean bildu beharko dira beste administrazio, entitate edo pertsona publiko edo pribatu batzuei helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, eta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak zehaztu beharko dira. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria: eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatu behar du.

Memoria hori V. eranskineko inprimakiarekin bat aurkeztu beharko da. Memoriaz gain, laburpen-orri bat aurkeztu beharko da, formatu digitalean, honako alderdi hauek jasota: Kokapen geografikoa, proiektuaren testuinguru orokorra, aurreikusitako helburuak, egin beharreko jarduerak eta tokiko kide edo kontrapartearen aurkezpen laburra.

Eranskin tekniko guztiek zenbakituak eta izenburudunak izan beharko dute, eta proiektuaren edukari dagozkionak.

g) Tokiko kidearen edo kontrapartearen (herrialde hartzailea) nortasun juridikoa egiaztatzeko honako agiri hauek, direla jatorrizkoak direla kopia ziurtatuak:

- . Estatutuak
- . Legezko eraketa egiaztatzeko agiria, proiektuaren onuradun den herrialdeko legeekin bat. Legezko helbidea, osorik.
- . Entitatearen legezko ordezkaria nor den aipatzea eta haren akreditazioa (nortasun agiri nazionala, pasaportea edo antzekoa).

h) Proiektua diruz lagunduko balitz, hura gauzatzeko GGKE eskatzailearen eta tokiko kidearen lankidetzarako konpromisoa egiaztatzeko agiria.

i) Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera –aurreko urteetan aurkeztutako banku-entitateari dagokionez aldaketarik izan bada soilik aurkeztu beharko da–, betiere datak eguneratua eta eskaerak aurkezteko epemugatik hurbilekoa behar duelarik. Eredua erantsi da (IV. eranskina).

j) Proiektua garatzeko aurreikusi diren gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu banakatua, bai eta entitateak jartzen dituen baliabideak ere –berek edo tokikoak– (V. eranskina).

k) Proiektuaren kokapen zehatzaren mapak (herrialdea, eskualde-departamentuaren mugapea, probintzia-mugapea eta udal-mugapea).

l) Gauzatu beharreko proiektua edo jarduketa zuzen ulertzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein agiri (grafikoak, teknikoak, finantzakoak edo bestelakoak).

m) Egiaztagiria, GGKE eskatzaileak egindako jardueri buruz: azken urtean Iruñean egindako sentsibilizazio-jarduerak egiaztatzeko; sentsibilizazio-jarduerak egiaztatzeko; larrialdiz esku hartu beharreko eremuan egin duen lana egiaztatzeko, eta noiztik egiten den (data). Ez dira aurkeztu beharko G.4.a), G.4.g) eta G.4.i) apartatueta zehaztutako agiriak, baldin eta Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal-programaren eskuetan badaude eta horietan aldaketarik izan ez bada; hala bada, haien ordeztu erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ahalgo da, eta bertan adierazi noiz eta zein organotan edo bulegotan aurkeztu ziren edo, halakorik balitz, zeinek eman zituen edo zeinetan dauden jasota. Edozein kasutan, ezin izanen dira bost urte baino gehiago igaro dagokien prozedura amaitu zenetik.

Agiriekin jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuek, edo, bestela, indarreko legeekin bat



benetakoak diren kopiak.

H. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, horretarako aurrekontu-kreditua dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4 apartatuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Instrukzio-organoak emanen du ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik eta espedienteak kontuan harturik, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Instrukzio organoak aurre-ebaluazio bat egingen du, eta hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non eskura daukan informazioaren arabera onuradunek bete behar dituzten betekizun guztiak betetzen dituztela egiaztatuko baita.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izanen da, eskaera erregistroan sartu eta egun horretatik aitzina.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta hauek zehaztuko dira ebazpenean berariaz: nork edo zer entitatek jasoko dituen edo dituzten dirulaguntzak, laguntzen zenbatekoak, eta, eskaerak ezetsiz gero, nor edo zer entitate diren eskatzaileak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- Tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

I. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Iruñeko Udalaren webgunean.

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

J. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Diruz laguntzen ahal diren gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ezbaierik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen J.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek laguntzen ahalgo dira diruz:

a) Emandako dirulaguntzek honako hauek estaltzen ahalgo dituzte: materialak, hornikuntzak, ekipoak eta ekoizteko bestelako aktiboak erosi eta garraiatzeko gastuak, honako hauekin zerikusia dutenak:

- Elikagaiak, oinarritzko materialak edo material sanitarioak, etab. erostea eta/edo bidaltzea, xede den biztanleriari eragiten dioten oinarritzko beharrak asetzen laguntzeko badira.
- Oinarritzko azpiegiturak berreraiki eta birgaitzekoak, baldin eta larrialdi humanitarioko egoera eragin duten zioengatik kaltetu badira.
- Herritarrendako oinarritzko laguntza.

b) Dirulaguntzek, hala behar izanez gero eta baldin eta diruz lagundutako proiektuaren xedearekin haren



beharra garbi justifikatzen bada, tokiko langileei dagozkien gastuak estaltzen ahalko dituzte.

c) Iruñeko Udalaren dirulaguntzaren kargura egiten diren material-, ekipamendu- eta hornidura-erosketa guztiak proiektuaren xede den herrialdean edo ingurukoetan egin beharko dira, eta bertako produktuekin. Eginbehar hori betetzea ezinezkoa bada, baimena eskatu beharko zaio, idazki arrazoitu baten bidez, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari.

d) Botiken erosketak salbuespenezko izaera izanen du, eta medikuen aginduei erantzun beharko die eta Osasunaren Mundu Erakundearen indarreko jarraibideekin bat etorri beharko dira.

e) Dirulaguntza lurrak edo ondasun higiezinak erosteko erabiltzea salbuespenezkoa izanen da, eta, betiere, haien legezko egoerari buruzko txostena egin eta benetan erosten ahal direla frogatzen duen beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu beharko da. Gainera, ondasun horien titulartasuna proiektua gauzatzen den herriko populazioa ordezkatzen duen komunitate-erakunderen bati egokituko zaio. Azken baldintza horrek eraikin berriak eraikitzeke proiektuetarako ere balio du.

Diruz laguntzen ahal diren gastuetan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen 2.2) apartatuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak: ☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere dirulaguntzen xede izanen:

a) Garatu beharreko proiektuen ezaugarriak direla eta, dirulaguntzaren erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du bere ekarpena edo beste bitarteko batzuetatik datorrena erabiltzeko, proiektuaren administrazio- eta kudeaketa-gastuak finantzatzeko.

b) Atzerriratutako langileei egotzitako gastuak.

2. Diruz laguntzen ahal diren gastuak egiteko epea: : *Proiektua gauzatzeko epe bera, hau da, sei hilabete, dirulaguntza ordaintzen den egunetik hasita, B.3.f) apartatuan adierazten den bezala.*

K. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoak: % 60

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez finantzatu beharko dituzte diruz lagundutako jarduerak letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatu beharko da:

☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoak: % 10

Kofinantzaketan parte hartzeko kanpoko ekarpen gisa onartuko dira lursail, areto, ekipo, material eta soldatapeko langileen eskulanaren balorizazioak, baldin eta aurrekontuan sartutako jardueren gauzatzearekin zuzenean loturik dauden onuradunei eta/edo tokiko langileei badagozkie. Ekarpene horiek kontraparteak egiaztaturik egon beharko dute, eta egiaztapen horretan ekarpena deskribatu eta kuantifikatu beharko da honako hauek adieraziz: herrialdearen soldata-erreferentzia eta/edo materialen kostua, unitate kopurua, lan-orduak, unitate bakoitzaren prezioa (hala badagokio) eta guztizko balorizazioa. Balorizazioak tokiko merkatuaren prezioari egokituko zaizkio.



M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatzen bada, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emailari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

N. ORDAINKETA:

1. Nola ordainduko diren: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

☒ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☒ Ordainketa aurreratua: Emandako dirulaguntzaren % 100, ordainketa bakar batean.

☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeak eratzea:

☐

BAI

☒

EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

Ñ. JUSTIFIKAZIOA:



1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☒ Justifikazio-kontua:

☒ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat). Justifikazioa telematikoki aurkeztuko da Udalaren Egoitza Elektronikoko Erregistroaren bidez <https://sedeelectronica.pamplona.es/>

1. Diruz lagundutako proiektuak egitearen arduradun diren GGKEk edo entitate onuradunek proiektuaren garapenaren txosten deskribatzailea eta finantzarioa aurkeztu beharko dituzte.

2. Azken txostenean honako agiri hauek jasoko dira:

a) Tokian tokiko bazkideari edo kontraparteari dirulaguntzaren zenbatekoa bidali izanaren egiaztagiria, aplikatutako kanbio-tasa zehaztuta.

b) Ziurtagiri bat, tokiko kidearen edo kontrapartearen legezko ordezkariak sinatua, herrialde onuraduneari dirulaguntza jaso dutela egiaztatzeko.

c) Egindako jarduketan eta gastuen justifikazio-agiria: Txosten teknikoa eta finantza-kontuen gainekoa, proiektuaren gauzatzeari buruz (VI. eranskineko ereduaren arabera), eta horrekin batera, gutxienez honako agiri hauek:

- Egindako jardueraren gaineko memoria xehatua, honako hauek adierazita: dirulaguntzarekin finantzatutako jardueren adierazpen xehatua eta proiektua gauzatzearen kostua, onuradunak sinatuta.

- Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta ordenan zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda.

- Aurreko zerrenda hori egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar dira: Fakturak, jaulkitzaileak behar bezala sinatutako ordainagiriak, are nominak ere, tributukoak eta Gizarte Segurantzako kuotak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak, betiere merkataritzako trafiko juridikoan balioa edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute eta horien zenbatekoa emandako dirulaguntzaren kargura ordaindu bada, modu korrelatiboan ordenaturik aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera. Aurkezten diren frogagiriekin honako hauek adierazi beharko dituzte gutxienez: jaulkipen data, jaulkitzailearen izena edo sozietatearen izena, identifikazio fiskaleko zenbakia edo antzekoa eta kontzeptua eta zenbatekoa ordainketa egin den monetan.

- Hartzekodunei ordaindu izana egiaztatzen duten agiriak. Ordaindu izana banku-zordunketa bidez egiaztatu behar da, behar bezala sinatutako "hartu-agiri" baten bidez edo, bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu direla ziurtatzen duen beste agiri bat aurkeztuz.

- Hartzailearen egiaztagiria, non ziurtatuko baita dirulaguntza zertarako jaso eta xede hori bete dela, aurkeztutako proiektuarekin bat.

- Hartzailearen egiaztagiria, Udalarenaz besteko dirulaguntzen zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa azalduta, baldin eta horiek proiektuaren xede diren jarduerarik finantzatu badute, bai eta beste diru-sarrera edo baliabide batzuenak ere.

- Gastuak Espainian egiten badira, gastuen egiaztagiria jatorrizkoak izanen dira; bestelako kasuetan, jatorrizkoak aurkezten ahalko dira, edo fotokopiak, entitate onuradunaren legezko ordezkariak emandako kautotasun-ziurtagiriekin batera.

- Egiaztagiria gaztelania, euskara, ingelesa edo frantsesa ez den beste hizkuntza batean idatzirik badaude, gaztelaniara itzuli beharko dira.

3. - Borondatez aurkeztu nahi den beste edozein agiri –idatzizkoa zein grafikoa–, finantzatutako proiektuaren funtzionamendu edo gauzatze egokia egiaztatze aldera.

4.-Justifikazio-fasean telematikoki aurkeztutako agirien egiazkotasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, VIII. eranskinarekin bat.

5. Organo kudeatzaileak, aurkeztutako agiriak ikusita komenigarritzat jotzen badu, entitate onuradunari eskatzen ahalko dio jatorrizkoak aurkez diezazkiola, 10 egun balioduneko epean eta



aurrez aurre, egiaztatzeko kopia soilean aurkeztutako agirien benetakotasuna; organo kudeatzaileak administrazio-espeditantean jaso beharko du egiaztapena egin duela eta aurkeztutako kopiak bat datozela jatorrizkoekin.

6. Halaber, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak deitzen ahalko die finantzatutako GGKEei edo entitate onuradunei, horiek proiektuen garapenaren berri eman diezaioten, betiere, horrek deialdi honen E) apartatuan aurreikusitako onuradunen betebeharrak galarazi gabe.

7. Diruz lagundutako proiektuen exekuzioaren gainean kontrol eta jarraipena gauzatzen ahalko dira, proiektuaren edozein urratsetan gauzatu ere, eta GGKE erantzuleek Iruñeko Udalak eskatutako edozein argibide edo agiri aurkeztu beharko dute. Finantza-kontrola GGKEei edo erakunde onuradunei eginen zaie, eta honako hauek egiaztatzea izanen du helburu: funtsak behar bezala lortu direla, jasotako funtsak aplikatzeko betebeharrak bete direla, dirulaguntza behar bezala justifikatu dela, aurkeztutako justifikazioaren arabera dirulaguntzarekin finantzatu diren eragiketak egiazkoak eta legezkoak direla.

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 34.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, berariazko justifikazio-araubide bat ezarri da Nazio Batuetako nazioarteko erakundeendako. Edozein kasutan, horiei beti eskatuko zaie aurkez ditzatela finantzatutako proiektuari egindako transferentzien egiaztagiria eta berariaz dagokien kontabilitate-kontrola, Estatu-parteei Nazio Batuen agentziei ezarritako funtzionamenduarekin bat. Aurrekoa gorabehera, Iruñeko Udalak erakunde horiei eskatzen ahal die beste edozein agiri entregatzeko, baldin eta egindako gastuaren justifikazio-kontuaren modalitateari badagokio eta Udalak garrantzitsutzat jotzen badu, betiere kasuan kasuko inguruabarrak aintzat hartuta, eta ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntza ematean aurreikusitako helburuak lortu direla behar bezala justifikatzeko.

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta:

Bestelako edukirik: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu erraztua:

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orrien aurkezpena:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga:

Justifikatzeko epea hiru hilabetekoa izanen da, gauzatzeko epea amaitzen denetik aitzina zenbatuta (6 hilabete, dirulaguntza ordaindu eta hortik aitzina).

Finantzatu beharreko proiektuak garatuko diren gizarte- eta geografia-testuinguruak kontuan hartuta, klausula honetan jasotako justifikazio-epeak egoki betetzea eragozten duten arrazoiak badaude, justifikazioa aurkezteko ezarritako epea luzatzen ahalko da, baldin



eta horrek kalterik egiten ez badie hirugarrenen eskubideei.

Epea luzatu ahal izateko, horretarako arrazoiak jakinarazi beharko zaizkio, idatziz eta dagokion txostena aurkezteko epea amaitu baino lehen, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari, eta horrek balorazio positiboa egin beharko du. Eskatu den epe-luzapena eragin duten inguruabarretara doituko da.

Azken justifikazio-txostena epe barruan ez aurkeztea ez-betetzetzat joko da, eta Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio.

O. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZOIAK:

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean 45. artikuluan eta apartatu honetan adierazitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak bat gertatzen bada, zilegi izanen da bai jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, bai berandutze-interesak galdatzea – dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

1. Ñ) apartatuan adierazitakoarekin bat, justifikazio-agiriak epearen barruan ez aurkeztea. Dirulaguntzaren entitate onuradunek jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituzte aipatutako kasuetan eta Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean 45. eta 46. artikuluetan xedatutako baldintzekin bat.

2. Edozein zio dela medio gastuak egiten ez badira, edo horietan funtsezko aldaketak egiten badira Iruñeko Udalak horretarako berariazko baimenik eman gabe, egin gabeko gastutzat hartuko dira.

3. Deialdi honen E) apartatuan jasotako eginbeharra ez betetzea, zeinaren arabera dirulaguntza zertarako jaso eta horretarako zehazki erabili behar baitira ondasunak.

P. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

Aurrez GNLUPekin harremanetan jartzea gomendatzen da, funts erabilgarriarik dagoen jakiteko.

R. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ **I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.**

☒ **II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA**



ZIURTATZEKO.

☒ **III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.**

☒ **ERANSKIN OSAGARRIAK.**
- **IV. ERANSKINA. TRANSFERENTZIA BIDEZ ORDAINTZEKO ESKABIDEA**
- **V. ERANSKINA. ENTITATEEN INFORMAZIOA ETA LARRIALDI HUMANITARIOKO PROIEKTU/JARDUKETAREN AURKEZPENA.**
- **VI. ERANSKINA. FORMULARIOA, DIRUZ LAGUNDUTAKO LARRIALDI HUMANITARIOKO PROIEKTU/JARDUKETA JUSTIFIKATZEKO.**
- **VII. ERANSKINA. BAIMENA, OGASUNEAN ETA GIZARTE SEGURANTZAN KONTSULTATZEKO.**
- **VIII. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA: DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIO TELEMATIKOA**